



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ehuBiblioteka

ePrest: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen bibliotekako liburu elektronikoen maileguaren plataforma

ePrest (<https://eprest.ehu.eus/>) Espainiako Unibertsitate Argitaletxeen Batasuneko (UNE) liburu elektronikoen mailegurako plataforma da, 6000 ale dituen.

Online bidez irakurtzea ahalbidetzen du edo aleak irakurgailuetara jaitea denboraldi jakin baterako. Mailegurako ezarritako epea amaiturik, edukiak blokeatu egiten dira.

Irakurtzeko gailuak

Liburuak online bidez irakur daitezke, edozein nabigatzailetan eta AdobeReader irakurgailuarekin. Konexiorik gabe ere irakur daitezke, liburuak gailu mugikor, smartphone eta abarretara jaitsita

Ezinbesteko baldintzak

Hauk bete behar dira ePrest-era sartzeko:

- UPV/EHUko kidea izatea.
- Kontu bat izatea **Adobe IDn**. Identifikazio hori izateko erregistratu beharra dago, doan, [AdobeID](#)-en orrian. Irakurtzeko erabili behar diren gailuak ere baimendu behar dira.

Irakurtzeko gailuak

Maileguan hartu nahi ditugun liburu elektronikoak jaisteko, hau egin behar dugu, lehengo eta behin:

- [Adobe Digital Editions](#) **ordenagailu batera** jaitsi, instalatu eta gailua identifikatu.
- **Liburu elektronikoen irakurgailu batean**. Behin Adobe Digital Editions delakoa ordenagailura jaitsita, liburu elektronikoen irakurgailua konektatu eta bertan gorde ditzakezu konexiorik gabe irakurri nahi dituzun mailegatutako liburuak.
- **Tabletetan eta smartphoneetan**. App Store-ra joan eta baimendutako irakurgailu bat jaitsi. Bluefire edo Aldiko-rekin gomendatutako app-ak. Dena dela, Adobe-ren DRMekin bateragarria den edozein aplikazio erabil daiteke. Behin app-a instalatuta eta irekita, AdobeID-a eskatuko du. Identifikazioa osatutakoan, gailua mailegurako prest egongo da.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

ehuBiblioteka

Mailegurako baldintzak

- Erabiltzaile batek, aldi berean, maileguan gehienez har dezakeen ale kopurua: 5
- Maileguaren iraupena: 7 egun
- Berritze kopurua: 3
- Erreserbak: erabiltzaile batek, aldi berean, gehienez 5 erreserba egin ditzake

Ale fisikoekin gertatu bezala, titulu bat maileguan emateak esan nahi du ale hori ezin izango duela beste erabiltzaile batek kontsultatu harik eta maileguaren epea amaitu arte. Bada mailegatutako aleak erreserbatzeko aukerarik. Alea erabilgarri dagoenean, erreserbatuta duen erabiltzaileak mezu elektronikoa jasoko du horren berri emanez.

Nola egiten den mailegua

Mailegu bat egin ahal izateko, ePrest plataforman identifikatu behar da pantailaren eskuinaldeko goi parteko **ENTRAR** botoia sakatuz, LDAP eta pasahitza sartuz.

“**Su cuenta**” menuan maileguan ditugun liburuak ikus daitezke, irautitze data, mailegatutako liburuaren erreserbak egin daitezke edo itzulketak.

Bilaketa egin eta emaitzen orrian ikus daiteke liburua erabilgarri dagoen ala ez.

Alea aurkitutakoan, **PRESTAR** botoia aukeratu eta irakurtzeko nahi duzun aukera hautatu.

Liburu elektronikoa aukeratu aurretik, gomendatzen dizugu “**Previsualizar**” aukera erabiltzeko, jakin dezazun ea hautatutako liburua interesatzen zaizun.

Mailegua egindakoan, irakurtzeko bi aukera daude:

1. Online bidez irakurtzeko

Leer PDF hautatu eta liburua haren nabigatzailean zabaltzen da online bidez irakurtzeko.

2. Offline bidez irakurtzeko, liburuak jaitsi

- Ordenagailu batean baimendu erabili behar den irakurgailua.
- Kanpoko gailuetan:
 - Liburu elektronikoen irakurgailuak: irakurgailua konfiguratu eta baimendu.
 - Tabletetan eta smartphoneetan: app-ak jaitsi, konfiguratu eta DobeID bidez baimendu.

Itzulketak

Mailegu epea amaituta, liburuak blokeatu eta gailuetatik ezabatzen dira, hau da, ezin da edukiaz baliatu, beraz, nahi ez bada, ez dago zertan itzuli. Liburuak edonoz itzul daitezke, onlineko irakurgailutik aukera hori erabiltzen bada, edo



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

ehuBiblioteka

irakurgailutik, jaisteko aukera erabili bada. Azken kasu horretan, liburuak ez dira ePrest-etik itzultzen.

Iraungita maileguez ez dute zigorrik sortzen, itzulketan atzeratzerik ez dagoela eta.

Bestelako aukerak

ePrest plataformak hau ere egitea ahalbidetzen du:

- Bibliografi erreferentziak esportatzea honakoetara: Refworks, EndNote edo Mendeley.
- Liburuetakoko erreferentziak aipatzea APA eta MLA formatuan.
- Liburu zerrendak egitea Gogokoak aukeraren bidez.
- Bilaketak gordetzea.
- Iruzkina egitea edo irakurritako liburuak etiketatzea.
- Irakurritakoa sare sozialetan partekatzea.